

ENPRESEN ITXIERA

GOMENDIOAK

Adi egon

Kontsumobideren gomendioak kontsumitzaileentzat, enpresa bat ixten denerako.

Zergatik?

Enpresa bat ixteak hainbat modutan eragin diezaioke kontsumitzaileari: ez dago produktu baten bermeaz baliatzerik, ez dago trukatzerik establezimendu horrek emandako bono ekonomikorik, ez dago produkturik itzultzerik, ez dago ordaindutako erresak berreskuratzerik edo finantzaketa-kontratu bat indarrean dago, emango ez den zerbitzu bat ordaintzeko.

Kontsumobideren gomendioak:

1. Saiatu harremanetan jartzen enpresako arduradunekin, eragiten dizun arazoa konpontzen ahalegintzeko. Horretarako, batzuetan, itxitako establezimenduetan daturen bat azaltzen da ixtearen ondorioz eragindako pertsonen harremanetan jartzeko bidea izan dezaten.
 2. Gorde eta bildu erreklamatzekoa den produktua edo zerbitzua erostearekin lotutako dokumentazio guztia.
 3. Bermeaz baliatzeko arazorik izanez gero, produktua edo zerbitzua erositako establezimendua itxi delako, gomendatzen da harremanetan jartzea enpresaren egoitza nagusiarekin, halakorik badauka, eta, ez badauka, zuzenean harremanetan jartzea produktuaren fabrikatzailearekin.
 4. Enpresarekin inolaz ere ezin denean kontaktatu, hilabete bateko epean erantzunik jaso ez denean edo jasotako erantzuna ez bada egokia kontsumitzailearentzat, arazoa konpontzeko bide bakarra auzitegietara jotzea da, eta hartzekodun gisa bertaratzea; jaso ez den zerbitzu batean inbertitutako dirua berreskuratu bada, behinik behin.
- Kontsumitzailea noiz, nola eta non bertaratu beharko den hartzekodunen konkurtsoan agertuko da ediktu batean, dagokion merkataritza arloko auzitegikoa -enpresaren helbide sozialari dagokiona izango da- eta BOEn (IV atalean: Justizia administrazioan. Merkataritza arloko epaitegietan) argitaratu beharko da. Konkurtsora bertaratzeko epea hilabetekoa izango da, iragarkia argitaratu den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
5. Kontsumitzailea ahalegindu beharko da ezeztatzen produktu edo zerbitzu bati lotutako finantzazio kontratua -sinatuta baldin badauka banku erakundearekin-. Lehenengo eta behin, finantzazio erakundera joan beharko da eta horrela lortzen ez badu, auzitegira jo beharko du.
 6. Komenigarriena kontsumitzaileen elkarte batera jotzea da, kasua aztertuko baitu auzitegian aukerarik egon litekeen ikusteko.



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

Eusko Jaurlaritzako Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

HARREMANETARAKO



Santiago, 11 hiribidea



945.062.140

01002 Vitoria-Gasteiz



kontsumobide@kontsumobide.eus

www.kontsumobide.eus

